



## **Almitza Sega Elkarte**

**Zaldibia**

**CIF: G20805941**

**AS/G/10233/2003**

### Araudia

- Segalari guztiek, zozketa bukatu ondoren, antolakuntzak zehaztutako denbora bat izango dute egokitu zaien saila ikuskatzeko.
  - Segalari bakoitzak sega bakarria erabili beharko du.
  - Sega bera edo kirtena hondatuz gero, epailearen baimenarekin aldatu ahalko da.
  - Ordezko partzela bat egongo da kasuren batean bigarren aukeraren bat emanda ere.
  - Norberak zorroztu beharko du edo, kasu bakoitzean, antolakuntzak adieraziko du bestela nola egin.
  - Segalariak laguntzaile bakarria izango du baina honek aholkuak bakarrik eman ditzake. Ez du, beraz, sega zorrozterik ez eta ukitzerik izango. Era berean, belarrik ere ezin izango du ukitu.
  - Antolakuntzak zorroztaile behar dela erabakitzen badu, laguntzailea bera izango da zorroztailea eta ez beste inor.
  - Belardian uzta edo landare ez ohikoren bat, lurra, harria, egurra edota horrelakorik balego, epaileari jakinarazi beharko zaio.
  - Lanean hasi aurretik sega eskuan eduki daiteke.
  - Belarra edozein erataria ebaki daiteke kontra-mailan izan ezik, epaileek bestelakorik adierazten ez badute behintzat.
- [www.almitza.eus](http://www.almitza.eus) [almitzasega@gmail.com](mailto:almitzasega@gmail.com)



## **Almitza Sega Elkartea**

**Zaldibia**

**CIF: G20805941**

**AS/G/10233/2003**

- Baloratzera kontutan hartuko da: Belarra ahalik eta txukunen eta denbora laburrenean ebakitzea. Txukun ebakitzea; belarra berdin, zeharo, mailapean arrastorik utzi gabe, sega kolpe bakoitzaren arrastoak nabarmendu gabe, sail bakoitzeko belar izpi guztiak ebakita uztea.
- Mozketaren balorazioa:

Sail bakoitza moztean hasiko da epaileen puntuaketa-lana. Horretarako irizpide hauek jarraituko dira:

- Sailaren txukuntasuna: 0-4 bitartekoa; 0 oso txukun izango delarik (0, 0'5, 1, 1'5, 2, 2'5, 3, 3,5, 4).

Puntu bakiak epaileko (4epaile) 8 segundoko penalizazioa izango du gizonezkoen kasuan eta emakume eta gaztetxoenean 4 segundokoa, eta mozketaren balorazioa ondoko biderketaren bidez neurtuko da:

$$\text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}} = \text{EMAITZA}_{\text{TXUKUNTASUNA}} \times 8 \text{ seg}$$

Behin mozketa baloratu delarik, emaitza horri igarotako denbora batuko zaio:

$$\text{EMAITZA}_{\text{GUZTIRA}} = \text{DENBORA} + \text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}}$$

Honela, emaitzarik baxuena duen segalaria suertatuko da garaile eta hurrenez hurren gainerakoak.

- Bigarren pertsona bat zorroztaile gisa erabiltzea zigortu egingo da, antolakuntzak hala baimendu ez badu behintzat. Erabiltzen den aldiro 15 seg.-ko zigorra aplikatuko da gizonezkoen kasuan eta 10 seg.-koa emakumezkoenean.



## **Almitza Sega Elkartea**

**Zaldibia**

**CIF: G20805941**

**AS/G/10233/2003**

- Lana amaitutakoan, segalariak sega utzi gabe eskua jaso beharko du, kronometratzaileek kronometroa gera dezaten
- Segalariak berak erretiratu beharko du sega, berehala, eta ez beste inork, bere lana amaitutakoan.
- Arau guzti hauen arabera baloratuko da segalarien jarduna.
- Ekitaldi horretako sailkapeneko emaitzan berdinketarik balego:
  - Denborarik laburrenean ebaki duenari emango zaio lehentasuna.
  - Denbora eta penalizazioetan ere berdinketa balego berriz, gazteenari.
- Sailkapen orokorrean berdinketa balego:
  - Denboren batura txikiena duena gailenduko da
  - Denboren baturan berdinketa balego berriz, gazteena gailenduko da.

Arau hausterik egonez gero, epaileen puntuaketan zigorra eragingo du (esaterako, sega behar baino lehenago hartzeagatik 5 seg.ko penalizazioa izango da eta bukatu ondorenean mototsak ebakitzeagatik 15 seg.koa).